

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4058

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 6koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzei buruzko dekretuproiektua.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko ekainaren 30eko Aginduak aldeztu aurretik onartu zuen garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzei buruzko dekretuproiektua.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapenek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Halaber, xedapenen izaera aintzat hartuta komenigarria baldin bada, jendaurrean jarri beharko dira.

Ilido beretik, jendaurreko informazioaren izapidea egiteari egoki iritzi zaio gizarte-eragile interesdun gehienek parte har dezaten izapidetzen ari den arauan.

Hori dela eta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu era arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearekin bat etorritik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzei buruzko dekretuproiektua jendaurrean jartzea, bi hilabetez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko apartatuan xedatutako ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretuproiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 6a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.